

Igartzaeta (Iartzeta)



OTEGI MUJIKA familia

IARTZETA, Olaeta auzoko baserria da. Bere inguruko baso eta soro-izenen artean ditugu *Txara*, *Ituribarrena*, *Buztiñeta*, *Arrebaso*, *Itxao*, *Lanberri*, *Mutegi*, *Etxitura*. Toki izen hauetako askok paraje horretan egin diren lanen berri ematen digute.

Baserritik elizara eta lantegira ordu erdiko bidea da, eta etxearen jabe egin ziren 1935ean, hemezortzi mila pezeta ordainduta.

1905ean ezkondu ziren Joxe Luix Otegi, Itsasondoko Urkiko *Olate* baaserritik etorria eta bertako alaba. Hamahiru seme-alaba izan zituzten. Hurrengo hazaldian, osatu zen Otegi-Mujika familia, 1935ean ezkondu baitziren bertako seme Prantxiko Otegi eta Prantxika Antoni Mujika, Zaldibiko *Azpikotxe* baserrikoa. Ezkondu zirenean, aita eta hiru anaia-arreba bizi ziren baserrian eta beraiekin bizi izan ziren hogeitaz. Anaia Hilarikok Fabrika Handian egiten zuen lan, baina baserritik bizi ziren.

Hamalau seme-alaba izan zituzten: Patxi, Joxe, Maria, Pilar, Karmen, Felipe, Bernardo, Martina, Jexus Mari, Jabier, Maria Angeles, Ines, Joan eta Maria Luisa.

Baserrian bost-sei behi zituzten. Laborantzan garia, artoa, babarruna egiten zuten, eta Ordiziako ferrian saltzen zituzten oilaskoak, untxiak eta txerriak eta baita sagarrak eta gaztainak ere.

1950ean Joxe semea ere hasi zen Fabrikan Handian. Hermandadea sortu zuten Prantxiko Otegi eta auzoko gehienek 1947an eta beraien arteko seguru bezala funtzionatu zuten 1969 bitarte. Modu horretan, ezbeharren bat izandakoari diruz laguntzen zioten: txekor baten abortua, itoak... edo beste zer edo zer.

Baserriaren arrastoa idatzietan

Iartzeta agertzen da, *Igarzaeta* izenarekin, 1783-12-17an, Francisco Antonio de Echaveren aurrean, Enerio eta Aralarko sailen erabileraz bitartekari bati emandako botere-emaileen artean. Bi ordezkari agertu ziren bilera hartara.

Informazio emailea: Bernardo Otegi



OTEGI MUJIKA familia
Prantxiko Otegi eta Prantxika Mujika.



OTEGI MUJIKA familia

Patxi, Joxe, Maria, Pilar, Prantxika Mujika (ama), Prantxiko Otegi (aita), Karmen, Felipe / Bernardo / Martina, Jexus Mari, Jabier, Maria Angeles, Ines, Joan eta Maria Luisa. Pilar eta Karmen ahizpak ezkondu ziren eguneko argazkia.